d) Jardueren proiektua: diru-laguntzaren xede den jarduerari buruzko txostena eta hura burutzeko egutegia. Horrekin batera, beren-beregi adierazi behar dira jarduera aurrera eramateko proiektu globalaren faseak, eta kanpaina amaitu ondoren hartu beharreko neurriak, aztarnategiaren eta berreskuratutako ebidentzien kontserbazioa bermatzeko.

d) Proyecto de actividades: Memoria detallada de la actividad para la que se solicita subvención, así como su calendario. Junto a ello se deberán consignar de forma expresa las distintas fases del proyecto global en el que se enmarca dicha actuación y las medidas a adoptar tras el fin de la campaña para garantizar la conservación del yacimiento y de las evidencias recuperadas.

e) Esku-hartzearen zuzendariaren *Curriculum vitae*.

e) *Curriculum vitae* de la persona responsable de la dirección de la intervención.

Zuzendaritza-lana ikerketa nagusia egiten duen pertsona berak egiten ez badu, haren *Curriculum vitae* ere bai.

Cuando la dirección no recaiga en la misma persona que desarrolla la investigación principal, también *Curriculum vitae* de ésta.

f) Eskatzailea enpresa bat denean, proiektua zuzentzen duen pertsonarekin duen kontratu-harremana egiaztatzen duen ziurtagiria, bai eta proiektuaren ikertzaile nagusiarekin duen kontratu-harremana egiaztatzen duena ere –bi baldintza horiek pertsona berean ez daudenean–.

f) Cuando la solicitante sea una empresa, certificado acreditativo de la relación contractual con la persona que ostenta la dirección del proyecto y también de la relación contractual con la investigadora principal del mismo -cuando ambas condiciones no concurren en la misma persona-.

Eskatzaileak, pertsona fisikoa denean, aldi berean zuzendari eta ikertzaile nagusiaren baldintzak betetzen ez dituztenean, proiektuarekiko lotura egiaztatzen duen dokumentazioa.

Cuando la solicitante persona física no reúna a la vez las condiciones de directora e investigadora principal, documentación acreditativa de su vinculación al proyecto.





g) Zuzendaria eta/edo ikertzaile nagusia -bi baldintza horiek pertsona berean ez daudenean- titularrak izan diren aurreko esku-hartze arkeologikoetarako baimenen ondoriozko betebeharrak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa, bai esku hartu nahi den aztarnategian, bai Bizkaiko beste aztarnategi batzuetan (txostenak, memoriak eta Arkeologi Museoan gordailuan materialak uzteko aktak, Bizkaian arkeologia-jarduerak egiteko araudia ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuaren 11. artikulua -3, 4, 5 eta 6 atalak- xedatutakoaren arabera).

h) Memoria, non dokumentu bidez justifikatuko diren foru dekretu honen 10. oinarrian adierazitako ebaluatze irizpideak. Halaber, jardueraren aurrekontua zehaztuko da eta, gutxienez, alderdi hauek izango ditu:

1) 2024ko ekitaldian garatuko den proiektu-fasearen kostu osoa (zuzendaritzak egindako koordinazio-, azterketa- eta interpretazio-prozesuen ondoriozkoa barne).

2) Diru-laguntzaren xede diren kontzeptuen kostu zehatza.

3) Kopuru hori ehunekotan zenbat den 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren barruan.

4) Hurrengo urteetan egingo direla-eta, foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzen xede ez diren proiektu-faseen gutxi gorabeherako kostua.

i) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Era berean, berdintasunaren arloan, eta eskatzailea horretara legez behartuta dagoenean, honako betebeharrak hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du, eskabidean dagokion laukia markatuz:

g) Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones derivadas de autorizaciones de intervenciones arqueológicas anteriores -tanto en el yacimiento donde se proyecta intervenir, como en otros del territorio de Bizkaia- de las que la persona directora, y/o la investigadora principal -cuando no sean la misma persona- haya sido titulares (informes, memoria y actas de depósito de materiales en el Arkeologi Museoa, especificados en los apartados 3, 4, 5 y 6 del artículo 11 del Decreto 62/1998 de 12 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establece la normativa para la ejecución de actividades arqueológicas en Bizkaia).

h) Memoria en la que se justifiquen documentalmente los criterios de valoración señalados en la base 10 de este decreto foral, y en la que se detalle el presupuesto de la actividad, conteniendo, como mínimo, los siguientes extremos:

1.º El costo total (incluso los derivados de los procesos de coordinación, análisis e interpretación realizados por la dirección) de la fase del proyecto a desarrollar durante el ejercicio de 2024.

2.º El costo preciso de los conceptos para los que se solicita subvención.

3.º El porcentaje que dicha cantidad supone en relación con el presupuesto del ejercicio de 2024.

4.º La estimación del costo global de otras fases del proyecto que no son objeto de subvención por este Decreto Foral por estar prevista su realización en años sucesivos.

i) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Así mismo, en materia de igualdad, y cuando la solicitante estuviera legalmente obligada a ello, deberá acreditar el cumplimiento de las siguientes obligaciones, marcando en la solicitud la casilla correspondiente:





a) Erantzukizunpeko adierazpena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana izateko betebeharra betetzen duela adierazten duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, bai eta hori benetan aplikatzeko betebeharra ere.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, hamabost langile baino gehiago dituzten kasuetan, lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatze eta desagerrarazteko neurriak betetzen dituela adierazten duena, eta, bereziki, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

a) Declaración responsable de que cumple con la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

b) Declaración responsable -en los casos en que cuenten con más de quince personas trabajadoras en plantilla- de que cumple las medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztagarria.

1. Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazio honek banku-datu horiek bere kabuz egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da, hurrengo web-orrian eskuragarri dagoena:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>.

Base 7. Documentación verificable.

1. El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos necesarios para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Los referidos datos son:

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

En caso de que la persona solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, se deberá aportar ficha de domiciliación bancaria debidamente cumplimentada, en el modelo oficial disponible a través de la página-web:

<http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>.





b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Partaidetzarik gabeko enpresen kasuan, bai eta enpresaburu edo profesional diren pertsona fisikoen kasuan ere, EJJn alta emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Nolanahi ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultura Ondarearen Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

8. oinarria. Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat ez badute, orduan agindeia egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epean akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egindakotzat joko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con Seguridad Social.

d) En el caso de empresas no participadas, así como de personas físicas que ostenten la condición de empresarias o profesionales, el certificado de alta en IAE.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Servicio de Patrimonio Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. Subsanción o mejora de las solicitudes.

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, el Departamento Foral de Euskara, Cultura y Deporte podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.





9. oinarria. *Diru-laguntza emateko prozedura.*

Diru-laguntza hauek norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 10. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 10. oinarriko 2. paragrafoan aipatutakoaren arabera epaimahaiak ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-diru-laguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien diru-laguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako diru-laguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

10. oinarria. *Diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideak.*

1. Foru dekretu honek azaltzen dituen diru-laguntzak norgehiagoka sistema bidez emango direnez lehentasun-ordena ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak honako irizpide hauek eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez ere 100 puntu emango dira, honela:

Base 9. *Procedimiento de concesión.*

La concesión de las presentes subvenciones se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 10, proponiendo la adjudicación de las subvenciones forales a aquellas que hayan obtenido mayor puntuación, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones forales a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida por el tribunal conforme al apartado 2 de la base 10, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje de subvención aplicado a las mismas, hasta agotar la cuantía disponible.

Base 10. *Criterios de valoración de las subvenciones*

1. Al objeto de establecer un orden de prelación, dado que las subvenciones a que se refiere este decreto foral se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva, el Tribunal calificador aplicará los siguientes criterios y su ponderación, que, sobre un máximo de 100 puntos, quedan establecidos como sigue:





a) Proiektuari dagokionez (gehienez ere, 30 puntu):

1) Esku-hartzeak ondare arkeologikoaren ikuspegitik duen kalitatea eta interesa. Horregatik, gehienez 20 puntu emango da.

Gehienez emango diren 20 puntu horietan, jardueren proiektu hauek joko dira interes handiagokotzat: dagoeneko martxan dauden beste jarduera batzuei gainjartzen ez zaizkienak eta ikerketa arkeologikoaren barruan antzeko ekarpen bibliografikoak edo dokumentuak dituzten gai-eremuak aztertzen ez dituztenak.

Beraz, haztaper hau ezartzen da:

20 puntu: interes eta kalitate gorena.

10 puntu: interes eta kalitate nabaria.

0 puntu: interes eta kalitate gutxi.

2) Egingo den ikerketa-proiektu orokorraren plangintza egokia aurkeztea, helburuak eta faseak ondo definituta, eta, bereziki, 2024ko esku-hartzeari dagokionez. Ematekoa den puntuazio osotik 10 puntu emango dira gehienez:

10 puntu: osorik planifikatutako proiektuak badira, helburuak eta lan-faseak zehaztuta dituztenak, eta, gainera, 2024ko ekitaldirako programa zehatza eta xehakatur aurkezten badute.

5 puntu: proiektu zehatzak badira 2024. urteko kanpainari dagokionez, baina zehaztu gabeak, aldiz, proiektu osoari dagokionez.

0 puntu: helburuak, faseak eta egutegia gutxi definituta dituzten proiektuak badira.

b) Jardungo duen taldeari dagokionez (gehienez ere, 50 puntu):

1) Proiektuaren zuzendaritza zientifikoaren kaudimen teknikoa. Hori ebaluatzeko, diru-laguntza eskatzen den proiektu zein aldi

a) En relación con el proyecto (máximo de 30 puntos):

1.º Calidad e interés de la intervención desde el punto de vista del patrimonio arqueológico. Se valorará hasta 20 puntos del total a conceder.

Sobre este máximo de 20 puntos se consideran de mayor interés los proyectos de actuación que no se superpongan a otros en curso, y que no traten de cubrir campos temáticos en los que existan aportaciones bibliográficas o documentos similares dentro de la investigación arqueológica.

En consecuencia, se establece la siguiente ponderación:

20 puntos: Máximo interés y calidad.

10 puntos: Destacado interés y calidad.

0 puntos: Escaso interés y calidad.

2.º Presentar una correcta planificación del proyecto global de investigación en objetivos y fases a desarrollar, con especial incidencia en la intervención de 2024. Se valorará hasta 10 puntos del total de la puntuación a conceder:

10 puntos: Proyectos íntegramente planificados, en los que se hayan fijado objetivos y fases de trabajo; y que a su vez presenten un programa específico y detallado para el ejercicio 2024.

5 puntos: Proyectos concisos en lo que respecta a la campaña de 2024, pero ambiguos en lo referente al proyecto global en que se integra.

0 puntos: Proyectos poco definidos en objetivos, fases y calendario.

b) En relación con el equipo de actuación (máximo de 50 puntos):

1.º Solvencia técnica de la dirección científica del proyecto. Se valorará cuantificando publicaciones y direcciones de excavación





historikoari lotuta egindako argitalpenak eta zuzendutako indusketa-lanak zenbatuko dira (40 puntu gehienez):

Lan arkeologikoen zuzendaritza-lanei, gehienez, 15 puntu emango zaizkie, hain zuzen ere, esku-hartze arkeologikoen kanpaina bakoitzeko puntu 1 emango da.

Diru-laguntzaren xede den gaiari buruzko aldizkari eta liburuetakoa artikuluei, gehienez, 15 puntu emango zaizkie, hain zuzen ere, 20 orrialdeko puntu 1 emango zaie.

Biltzarretara edo jardunaldietara joateagatik, baldin eta bertan komunikazio bat aurkeztu bada, edo gaiari lotutako ikastaroak emateagatik, gehienez, 10 puntu emango dira: komunikazio bakoitzeko, puntu 1, eta bost ordutik gorako ikastaro bakoitzeko, berriz, 2.

Hala eta guztiz ere, eta diskriminazio-ondorioz gerta ez dadin, atal honetan ikertzaile hasiberriei gutxienez 10 puntuko puntuazioa emango zaie, eta ondorio horietarako hasiberritzat joko dira duela bost urte baino gutxiago dagokion graduako titulazioa lortu duten ikertzaileak -diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunarekin alderatuta- baldin eta unibertsitate edo ikerketa-zentro bati atxikitako doktorego-tesi edo ikerketa-proiektu bati lotuta badaude; baina proiektu hori inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren eskaeraren xedea.

2) Taldearen kaudimen teknika eta antolaketakoa. Atal honetan kontuan hartuko da taldeak espezialista egokiak izatea proiektatu den esku-hartzerako, baita erakunde zientifiko baten babesak izatea ere (10 puntu, gehienez):

10 puntu: erakunde zientifiko baten (unibertsitatea edo ikerketa-zentroa) babesak izanez gero, eta aztarnategiaren arazoei aurre egiteko beharrezkoa den diziplina anitzeko taldea izanez gero.

relacionadas con el proyecto y periodo histórico para el que se solicita la subvención (máximo de 40 puntos):

Se valorará hasta un máximo de 15 puntos la dirección de trabajos arqueológicos, otorgando 1 punto por cada campaña de intervenciones arqueológicas.

Se valorará hasta un máximo de 15 puntos los artículos en revistas y libros relacionados con la materia objeto de la subvención, otorgando 1 punto por cada 20 páginas.

Se valorará hasta un máximo de 10 puntos la asistencia con comunicación a congresos o jornadas, así como la impartición de cursos relacionados con la materia, otorgando 1 punto por cada comunicación y 2 por cada curso superior a cinco horas.

No obstante, y a fin de evitar un efecto discriminatorio, a los y las investigadoras noveles se les atribuirá en este apartado una puntuación mínima de 10 puntos en todo caso, considerándose noveles a estos efectos a aquellas y aquellos investigadores que hayan obtenido la correspondiente titulación de grado hace menos de cinco años -con respecto a la fecha de finalización del plazo de presentación de las solicitudes de subvención- siempre que estén vinculados a un proyecto de tesis doctoral o proyecto de investigación adscrito a una universidad o centro de investigación, que en ningún caso podrá constituir el objeto de la solicitud de subvención.

2.º Solvencia técnica y organizativa del equipo. En este apartado se tendrá en consideración que el equipo cuente con los y las especialistas adecuadas al tipo de intervención proyectada, así como que cuente con el respaldo de una institución científica (máximo 10 puntos):

10 puntos: Si cuenta con el respaldo científico de una institución científica (Universidad o Centro de Investigación) y con un equipo multidisciplinar necesario para afrontar la problemática del yacimiento.





5 puntu: bietako bat bakarrik izanez gero: edo talde egokia edo erakunde zientifiko baten babesa.

0 puntu: Gutxi definituta badago edo ez badu erakunde zientifiko baten babes zientifikoa, ez eta aztarnategiaren arazoei aurre egiteko beharrezkoa den diziplina anitzeko lantalde bat ere.

c) Aurrekontuak proiektuarekin duen koherentziari dagokienez honako hau ebaluatuko da: aurrekontuak kontuan hartu behar du foru dekretu honen babesean 2024ko ekitaldirako eskatutako diru-laguntzaren xede den proiektuaren fasea, bai eta haren fase guztien aurrekontu-balioespena ere (gehienez ere, 10 puntu):

10 puntu: aurrekontu egokiak eta zehatzak dituzten proiektuak, bai 2024an egitekoa den faserako, bai esku-hartze orokorraren gainerako faseetarako.

5 puntu: 2024ko kanpainarako aurrekontu egokiak eta zehatzak dituzten proiektuak, baina aurrekontu anbiguoak edo osatu gabeak dituztenak, aldiz, esku-hartze orokorraren gainerako faseetarako, fase horietako gastuaren estimazio koherentea ez izateagatik.

0 puntu: aurrekontua gutxi azalduta duten proiektuak badira, edo, gehiegikeria edo gabeziagatik, esku-hartzea burutzeko aurrekontu desagokiak dituzten proiektuak badira.

d) Proiektuaren elementu berritzaileak. Proiektuaren izaera berritzailea baloratuko da, eman beharreko puntuazio osoaren 5 puntura arte, honela banakatuta:

5 puntu: oso proiektu berritzaileak gaiari eta metodologiari dagokienez.

3 puntu: berrikuntza ertaina duten proiektuak, gaiari eta metodologiari dagokienez.

0 puntu: garrantzi txikia edo garrantzirik gabea berrikuntza tematikoan eta metodologikoan.

5 puntos: Si cuenta sólo con equipo adecuado o sólo con el respaldo de una Institución Científica.

0 puntos: Si está poco definido o no cuenta con el respaldo científico de una institución científica ni con un equipo multidisciplinar necesario para afrontar la problemática del yacimiento.

c) La coherencia del presupuesto en relación con el proyecto: se evaluará que el presupuesto presentado tenga en consideración tanto la fase del proyecto para la que se solicita subvención para el ejercicio de 2024, al amparo de este decreto foral, como la estimación y detalle presupuestario de las fases futuras del mismo (máximo de 10 puntos):

10 puntos: Proyectos con presupuestos adecuados y detallados tanto para la fase a ejecutar en 2024 como a las diferentes fases futuras de la intervención global.

5 puntos: Proyectos con presupuestos claros y detallados en lo que respecta a la campaña de 2024, pero ambiguos o incompletos al carecer de estimación coherente del gasto para las fases futuras de la intervención global.

0 puntos: Proyectos con presupuestos deficientemente explicados o inadecuados para realizar la intervención por exceso o defecto.

d) Elementos innovadores del proyecto. Se valorará el carácter innovador del proyecto hasta 5 puntos de la puntuación total a conceder, desglosados de este modo:

5 puntos: Proyectos altamente innovadores en cuanto a su temática y metodología.

3 puntos: Proyectos con mediana innovación en cuanto a su temática y metodología.

0 puntos: Poca o nula relevancia en la innovación temática y metodológica.





e) Genero-ikuspegia proiektuan sartzea (gehienez 5 puntu):

1) Lan-taldean emakumeak egotea. Eman beharreko guztizkoaren 3 puntu emango dira gehienez.

3 puntu: emakumeen presentzia lan-taldean, % 70ekoa edo handiagoa.

2 puntu: emakumeen presentzia lantaldean, % 50ekoa edo handiagoa.

Puntu 1: emakumeen presentzia lantaldean, % 25ekoa edo handiagoa.

2) Genero-irakurketa jasotzen duten proiektuak, bai gaiari dagokionez, bai lortu beharreko helburu zientifikoen orientazioari dagokionez. Eman beharreko guztizkoaren 2 puntu emango dira gehienez, metatu ahal izango direnak.

Puntu 1: genero-gaiak jorratzen dituzten proiektuak.

1 puntu: lortu beharreko helburu zientifikoen orientazioan genero-irakurketa txertatzen duten proiektuak.

2. Epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko puntuazio bat ezarriko du, inoiz ere 50 puntu baino gutxiagokoa izango ez dena. Epaimahaiaren iritiz gutxieneko puntuazio hori lortzen ez duten proposamenak ezetsi egingo dira.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak 2024. urterako duen aurrekontuaren arabera, BEZa kenduta. Ez dira bakarrik kontuan hartu beharko landa-lanen eta laborategiko lanen (inbentarioak, etab.) ondoriozko gastuak; izan ere, zuzendaritzak egindako koordinazio-, azterketa- edo interpretazio-lanen ondoriozkoak ere kontuan hartu behar dira.

4. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketen jardueri dagozkiela

e) Inclusión de perspectiva de género en el proyecto (máximo de 5 puntos):

1.º Presencia de mujeres en el equipo de trabajo. Se valorará hasta un máximo de 3 puntos del total a conceder.

3 puntos: Presencia de mujeres en el equipo de trabajo igual o superior al 70 %.

2 puntos: Presencia de mujeres en el equipo de trabajo igual o superior al 50 %.

1 punto: Presencia de mujeres en el equipo de trabajo igual o superior al 25 %.

2.º Proyectos que recojan una lectura de género, tanto en su temática, como en la orientación de los objetivos científicos a alcanzar. Se valorará hasta un máximo de 2 puntos del total a conceder, que serán acumulables.

1 punto: proyectos que aborden una temática de género.

1 punto: proyectos que incorporen una lectura de género en la orientación de los objetivos científicos a alcanzar.

2. El tribunal calificador fijará una puntuación mínima, que en ningún caso será inferior a 50 puntos. Las propuestas que no alcancen dicha puntuación mínima, a juicio del Tribunal Calificador, serán desestimadas.

3. La determinación de la cuantía de la subvención se realizará a partir del presupuesto del proyecto presentado para el 2024, IVA excluido. Deberán incluirse no sólo los gastos derivados de los trabajos de campo y laboratorio (inventarios, etc.), sino también los resultantes de las labores de coordinación, análisis e interpretación de la excavación o estudios efectuados por la dirección.

4. Una vez comprobado que el proyecto y el presupuesto corresponden efectivamente a





egiaztatu ondoren, edo, behar izanez gero, zenbatzekoak ez diren gastuak eta gaitzizkoak kendu eta gero, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu da. Horretarako, epaimahaiak eskabideen hurrenkera finkatu du, eta diru-laguntzak honela emango dira: puntuazio altuagoa lortu duten eskabideek diru-laguntzaren portzentaje handiagoa izango dute.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 90 izango da, ezin finantza daitezkeen kontzeptuen arazketak egin ondoren, eta inola ere ez da izango HOGEL MILA (20.000) euroko zenbatekoa edo onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

11. oinarria. Aholkularitza.

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako interesdunen eskura dago web orrian:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

actividades susceptibles de subvención, o realizada en su caso la depuración de los gastos y excesos no computables, se procederá a determinar la cuantía de la subvención, para lo cual el tribunal establecerá una prelación de las solicitudes, de tal manera que se otorguen las subvenciones de forma que a mayor puntuación el porcentaje de subvención será mayor.

El importe máximo de la subvención será del 90 % del presupuesto depurado del proyecto presentado, una vez realizado al mismo las pertinentes depuraciones de conceptos no financiables, y, en ningún caso, superior a VEINTE MIL (20.000) euros, ni al importe solicitado por la beneficiaria.

Base 11. Asesoramiento.

El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral, a cuyos efectos se encuentra disponible en la página web:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

12. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonak behar besteko gaitasun tekniko, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Halaber, izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan

Base 12. Tribunal calificador.

1. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un tribunal calificador cuyas personas integrantes serán designadas por la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte mediante Orden Foral.

Las personas integrantes del mismo contarán con la capacidad técnica, administrativa, funcional y directiva suficiente para la adecuada apreciación de los requisitos exigidos en las solicitudes y valoración de los proyectos objeto de la presente convocatoria.

Igualmente, se cumplirá lo establecido en el art. 44 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad entre Mujeres y





ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, diru-laguntzak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

13. oinarria. *Ebazpena.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko prozeduran.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren, eskatzaileraren batek betebeharrak horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan. Hori egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela ohartaraziko zaio, behin ebazpena emanda.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bost (5) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, eta, edozein kasutan, deialdia 2024. urtean ebatzi behar da.

Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak emango du ebazpena, Epaimahai Kalifikatzaileak proposamena eginda.

Hombres.

2. El tribunal calificador, habida cuenta de los criterios para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución a la diputada foral de Euskara, Cultura y Deporte, con el fin de que se dicte la resolución definitiva.

Base 13. *Resolución.*

1. No se prevé en esta convocatoria, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las personas interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Patrimonio Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, y que no son deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de cinco (5) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes, debiendo resolverse la presente convocatoria, en todo caso, en el año 2024.

La resolución será dictada por la diputada foral de Euskara, Cultura y Deporte a la vista de la propuesta de resolución del Tribunal calificador.





Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honen interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindu hori argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Interesdunei posta ziurtatu bidez ere komunikatuko zaie, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez komunikatuko baitzaie.

Ebazpenean, berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio-bidea amaitzen duela eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal diola interesdunak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, edo, bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela, era berean zenbatutako bi (2) hilabeteko epea pasatu baino lehen.

14. oinarria. *Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin.*

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira xede bereko bestelako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, berdin dio estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako administrazioetatik nahiz erakunde publiko edo pribatuetatik datozen.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa,

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las personas interesadas a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia. También se comunicará a las personas interesadas por correo certificado, salvo a aquéllas que hayan presentado su solicitud a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, a quienes se les comunicará mediante el sistema de comparecencia en dicha sede.

La orden foral contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la persona interesada, interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskara, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

Base 14. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

